



Nagore Alkorta Elorza
Azpeitiko Alkatea

Leire Goenaga Uzkudun
Gizarte Zerbitzuetako Batzordeburua

Gertu. Azpeitiarrengandik gertu egotea. Horixe da gure helburua. Gertu, sortzen diren beharrak detektatu eta erantzuteko; eta, gertu, ahalik eta zerbitzurik gertukoena emateko. Horregatik lekualdatu gara, zerbitzua hobeagoa eskaintzeko eta herritarrei gura etortzea errazteko.

Okerren pasatzen ari direnzentzako, adinekoentzako, gazte eta familientzako, munduko txoko desbedinetatik etorri direnzentzako edo hilabete bukaerara iristeko arazo ekonomikoak dituztenentzako eta beste hamaika zailtasun sozialen aurrean daudenentzako gaude. Entzutea, laguntzea eta babestea da gure zeregina.

Liburuxka honetan bildu ditugu Azpeitiko Udalak herritarrei gizarte babesa eta ongizatea bermatzeko helburuz eskaintzen dituen dirulaguntza eta zerbitzuak. Bizitzaren etaparen batean ia herritar guztiok behar izaten dugu laguntza, mendekotasuna duen pertsonaren bat dugulako inguruan, zailtasun ekonomikoren bat dugulako. Egoera horiei aurre egiten laguntzea da gure lana. Zuentzat gaude.



GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA: Leire Goenaga Uzkudun
ARDURADUN TEKNIKO: Edurne Zubia Artabe



1766ko Matxinada kalea, 3-4



943 15 71 92



gizarte@azpeitia.eus



glosario

AUTONOMIA PERTSONALA

Zereginak modu independentean garatzeko gaitasuna edo baldintza da. Autonomia pertsonala hainbat esparrutan lantzen da, hala nola haur-hezkuntzan eta ezintasunak dituzten pertsonentzako hezkuntzan.

ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA

Hezkuntza izaerako jarduerak dira, gizarte edo komunitate eremuko arazoaren eraginpean dauden gizabanakoaren edo kolektiboaren inguruan egiten direnak. Arrazoi batengatik, haien bilakaerari eta ongizate pertsonal eta profesionalari eragiten dietenak.

BIZIKIDETZA

Espazio berean dauden giza taldeen baterako existentzia baketsu eta harmoniatsuari lotutako kontzeptua.

OINARRIZKO JARDUERAK

Norberaren gorputza zaintzera bideratutako jarduerak dira, hala nola dutxatzea, jantzea, jatea edo lo egitea.

FAMILIA UNITATEA

Ahaidetasun loturan dauden pertsonen multzoa da. Harreman motaren arabera, guraso bakarreko edo bi gurasoko modalitatea izan daiteke.

GIZARTE BAZTERKETA

Gizabanakoak edo taldeak bizi diren gizartean erabat edo neurri batean baztertuta egoteko prozesua.

ANIZTASUNA

Esparru edo espazio jakin baten barruan elkarren artean desberdinak diren askotariko gauzen existentzia da. Gizakien barruan aniztasun kulturala, etnikoa, sexuala, linguistikoa, ideologikoa eta erlijiosoa daude, besteak beste.

INKLUSIOA

Pertsona guztiak gizartean integratzeko jarrera, joera edo politika da. Pertsona horiek gizartean parte hartu eta prozesu horretan onura atera dezaten.

PAREKIDETASUNA

Emakumeek eta gizonek botere postuetan eta erabakiak hartzeko postuetan (politikan, ekonomian eta gizartean) modu orekatuan parte hartzea eta ordezkatzeta.

Gizarte Zerbitzuak

zer diren eta hauetaz nola baliatu

ZER DIRA GIZARTE ZERBITZUAK?

Zerbitzu publikoa da eta herritar eta kolektibo guztiei zuzenduta dago. Izan ere, Azpeitiko Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailaren helburua herritarrek ahalik eta bizi kalitate onena izatea da, aniztasunean, justizia sozialean eta berdintasunean oinarrituta eta adin, jatorri eta genero guztietako herritarren babes soziala eta ongizatea bermatuz. Udal sail honek, ahalegin berezia egiten du herritarren eskubide eta baliabideen inguruan informatu, baloratu eta bideratzeko. Baita herritarren sentsibilizazioan ere, gaur egun dauden behar sozialen eta parte hartze sozialaren inguruan kontzientziazteko.

NOR GARA?

Gizarte-laneko, psikologiako, gizarte-hezkuntzako eta administrazioko profesionalez osatutako taldea gara.

Pertsona edo familia batek gure laguntza behar duenean, lehenengo hitzordutik erreferentziako profesionala izendatzen zaio.

Zure egoera aztertu, zure beharrak detektatu eta horiei erantzuteko baliabideak eskainiko dizkizugu. Horretarako, Azpeitiko Udalak dituen baliabideak eta beste erakundeek eskainitakoak erabiltzen ditugu.

NON ETA NOLA ESKATU DITZAKET ZERBITZU HAUEK?

Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan edozein informazio edo laguntza eskatzeko, aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko da:


Telefonoz:
943 15 71 92

Larrialdi Gizarte Zerbitzuetako telefonoa (ohiko ordutegitik kanpoko zerbitzua):
943 22 44 11

Posta elektroniko bidez:
gizarte@azpeitia.eus

Aurrez aurre:
**1766ko Matxinada
kalea, 3-4**

Ordutegia:
**astelehenetik ostegunera
8:30etatik 14:30etara
ostiraletan
8:30etatik 14:00etara**



01

Pertsona
edadetuak

8 or.

03

Ezgaitasuna

26 or.

05

Menpekotasunak,
adikzioak

42 or.

07

Nazioarteko
lankidetzak

52 or.

09

Elkarteak

62 or.

02

Familia, haurrak
eta gaztedia

20 or.

04

Inmigrazioa eta
aniztasuna

36 or.

06

Gizarteratzea

46 or.

08

Emakumeenganako
indarkeria

56 or.

pertsona edadetuak



INFORMAZIO, ORIENTAZIO, BALORAZIO ETA GIZARTE- LAGUNTZARAKO ZERBITZUA

\ DESKRIBAPENA

Gizarte Zerbitzuen sisteman sartzeko bide bat da. Azpeitiko Udalak herritarren eskura dauden gizarte-baliabideen buruzko informazioa, orientazioa, balorazioa eta gizarte-laguntzarako zerbitzua eskaintzen du. Pertsona bakoitzak aholkularitza pertsonalizatua eta bere egoerari egokituta jasoko du. Horrela, gizarte langileek herritarren eskaerak jaso eta erantzungo dituzte, beraien arazo sozialak konpontzen saiatuz.

\ NORI ZUZENDUA

Herrian erroldatuta dauden persona edadetuentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

\ DESKRIBAPENA

Etkez etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako arretako zerbitzu publikoa da, laguntza eta prebentziokoa. Erabiltzaileari bere etxean egoten laguntzeko da, eta etxean bertan eta komunitatean integratu ahal izateko etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala eskaintzen dio, isolamendu-egoerak saihestuz.

Eguneko etkez etxeko zerbitzua:

Prestatzen diren zerbitzuak honako hauek izango dira: etxeko arreta, arreta pertsonala, bizitzako oinarritzako jarduerak eta jarduera instrumentalak. Zerbitzua astelehenetik ostiralera eta salbuespen modura larunbata igandea, eta jai egunak. Orduategia 07:00-22:00.

Gaueko etkez etxeko zerbitzua:

Prestatzen diren zerbitzuak honako hauek izango dira. Etxeko arreta, arreta pertsonala. Zerbitzua astelehenetik larunbatera. Orduategia 00:00-07:00.

Etxean arreta integrala emateko zerbitzua:

Erabiltzaileari bere etxean egoten laguntzera zuzenduta dago. Honako zerbitzuak eskaintzen dira bertan: jarduera instrumentala, gizarte-laguntza, eguneroko bizitzako jardueratako laguntza, estimulazio psikoafektiborako jarduerak, larrialdi-egoeretan arreta emateko jarduerak, etxean bertan moldatzeko laguntza eta ingurunea integratzea ahalbidetzeko laguntza.

\\ NORI ZUZENDUA

Bere autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten 60 urtetik gorakoentzat. Herrian erroldatuta egon beharko dira.

\\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

LAGUNTZA TEKNIKO

\\ DESKRIBAPENA

Erabiltzaileen autonomia hobetzeko helburua duen laguntzak dira, beraien eguneroko ekintzak autonomia pertsonalean egiteko tresnak utziz edo hauek erosteko dirulaguntzak eskainiz:

- Bainugela egokitzeko.
- Aulki gurgildunak eskuratzeko.
- Garabi elektrikoak eskuratzeko.
- Eskaren aurkako koltxoak eta ohe artikulatu elektrikoak eskuratzeko.
- Etab.

\\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta dauden mugapen fisikoak dituzten pertsona edadetuentzat.

\\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

TELELAGUNTZA

\\ DESKRIBAPENA

Segurtasuna eskainzeko helburua duen zerbitzua da. Telelaguntzako aparatuari esker, erabiltzailea Eusko Jaurlaritzako SOS Deiak-ekin zuzenean komunikaturik dago eguneko 24 orduetan. Kontaktuan jar daiteke erori egiten bada, gaixo baldin badago, gaizki sentitzen bada, etab.

Zerbitzu hau urteko egun eta ordu guztietan egongo da erabilgarri bere eskura jarriko den tresnari esker. Erabiltzailea botoari sakatzerakoan, bere arazoa konpon dezakeen zerbitzuarekin jarri ahalko da harremanetan.

\\ NORI ZUZENDUA

Bakarrrik bizi diren eta gaixotasun, elbarritasun, bakardade edo bestelakoek eragindako arriskuan dauden pertsona edadetuentzat.

\\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\\ KUDEATZAILEA

Eusko Jaurlaritza eta SOS Deiak.

ALDI BATERAKO EGONALDI

\\ DESKRIBAPENA

Adineko pertsonak euren etxeetan eta gizarte eta familia inguruan egoteko erraztasunak eskaintzen dituen zerbitzua da. Laguntza honi esker, erabiltzailea adinekoen egoitzan edo eguneko zentroan aldi baterako egonaldia eskatu dezake, bere senideak edo zaintzaileak aldi batean beraiekin egon ezin dutenean.

\\ NORI ZUZENDUA

Herrian erroldatuta dauden pertsona edadetuentzat.

\\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

IBILGAILUA APARKALEKUAN UZTEKO EUROPAKO TXARTELA

\\ DESKRIBAPENA

Ezgaitasuna edo ibiltzeko zailtasun handiak dituzten adineko pertsonari ematen zaie aparkatzeko txartel berezi hau. Erabiltzaileen ibilgailua horretarako bideratuta dauden aparkalekuetan uzteko aukera ematen duen txartela da.

\\ NORI ZUZENDUA

Herrian erroldatutako ezgaitasun bat duten pertsona edadetuentzat.

\\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

SENDIAN PROGRAMA

\ DESKRIBAPENA

Mendekotasuna duten edadetuen pertsonak etxean artatzen dituzten familiei laguntzeko baliabideen multzoa, familia-desorekak prebenitzeko, bizikidetzak normalizatu emateko eta mendekotasuna duen pertsonari arreta egokia emateko.

\ NORI ZUZENDUA

• **Bakarkako laguntza psikologikoa:** mendekotasuna duen adineko pertsona batekin bizi diren edo zuzenean arduratzen diren zaintzaileek eta familiek zailtasun psikologiko handiak izan ditzaketenez eta gizarte- eta familia-harremanak hondatzeko arriskua dutenez, tratamendu psikologiko indibiduala ematen zaie egoerari aurre egiteko laguntza handia behar dutenei (10 saio gehienez, eta 12 saio gehienez, salbuespen gisa).

• **Elkarri laguntzeko taldeak:** arazo bera duten pertsonen arteko elkarrekiko laguntzaren eraginkortasunaren ebidentzian oinarritzen dira, baita pertsonak irtenbide egokiak bilatzeko beren baliabideak aurkitzearen garrantzian ere, hori guztia adierazpena, komunikazioa eta parte-hartzea ahalbidetuko duen batez besteko batean. Gatazkei aurre egiteko eta gatazkak konpontzeko trebetasunak ikasteko kualifikazioa duten profesionalak zuzentzen dituzte talde horiek, baita erruduntasuna kentzeko prozesuetan ere.

• **Prestakuntza:** saio teoriko-praktikoak dira, familiakoei mendekotasuna duen adinekoari arreta hobea ematea ahalbidetzen dieten ezagutza espezifikoko ematen dituztenak, eta zainketa-lanean bermea ematen dietenak. Arlo medikoari, erizaintzari, psikogeriatrari, legeari eta gizarte-baliabideei buruzko edukiak ematen dira. Helburu informatiboa, hezitzailea eta terapeutikoa dute.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

KOTIZATU GABEKOEN PENTSIOAK

\ DESKRIBAPENA

Gizarte Segurantzaren kotizatu ez dutenentzako aldi baterako dirulaguntza da. Erabiltzailearen oinarritzko beharrak asetu ahal izateko eskaintzen dira.

• **Kotizatu Gabeko Pentsioa erretiroagatik:** pentsioen kontribuzio sisteman sartu ezin dutenentzat, hain zuzen.

\ NORI ZUZENDUA

Gipuzkoan erroldatuta dauden 65 urtetik gorako pertsonen zuzendua.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

MENDEKOTASUN ETA EZGAITASUN BALORAZIOAK

\ DESKRIBAPENA

Pertsona edadetuen egoera ezagutzeko balorazio desberdinak dira.

Mendekotasuna: edadetuen pertsonaren autonomia-maila eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko duen gaitasuna baloratzen da; halaber, orientazioa eskaintzen da eta mendekotasuna duen adineko pertsonarentzat zer baliabide diren egokienak zehazteko aukera ematen du.

Ezgaitasun balorazioak: edadetuen pertsonaren batez ere osasun fisiko eta mentalaren eremuan eragiten duten egoerak baloratzen zaizkio, eta, ondoren, pertsona gizarteratzea zailtzen duten faktore sozialak (familia-ingurunea eta lan-, hezkuntza- eta kultura-egoera).

\ NORI ZUZENDUA

Herrian erroldatuta dauden eta mendekotasun bat duten pertsona edadetuentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

FAMILIA INGURUAN ZAITZEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

\ DESKRIBAPENA

Etxean mendeko familiarteko bat zaintzeko prestazioa.

\ NORI ZUZENDUA


Mendekotasun gisa baloratzen duen dokumentu ofiziala duteneentzat eta zaintzen den familiartekoa hirugarren gradura arteko senidea direnentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.



ZERBITZUARI LOTURIKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

\ DESKRIBAPENA

Aldi baterako zerbitzua da. Dauden zaintza zerbitzu publikoak eskuratzeko aukerarik ez dagoenean emango da, eskatzen duen pertsonaren dependetzia maila eta diru-sarreraren arabera.

\ NORI ZUZENDUA

Honako baldintza hauek betetzen dituzten edadetuentzat:

- Mendekotasun bat dagoela baloratzen duen dokumentu ofiziala aurkeztea.
- Egoitza edo eguneko zentroa zerbitzua eskuratzeko itxaron zerrendan hiru hilabetetik gora egotea.

- Egoitza pribatu edo eguneko zentro batean tokia duela erakusten duen aurrekontratua aurkeztea edo behin bertan egonda ordaintzen ari dela erakusten duten fakturak aurkeztea.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

\ DESKRIBAPENA

Mendekotasuna duen pertsonaren laguntzailea kontratatatzeko aukera izatea da laguntza honen asmoa. Laguntzaileak bere hezkuntza eta lan aukerak hobetzen lagunduko dio, baita bere eguneroko bizimoduan autonomia handiagoz aritzen ere.

\ NORI ZUZENDUA

Honako baldintza hauek betetzen dituzten edadetuentzat:

- Menpekotasun graduko dependientea dela erakusten duen dokumentu ofiziala aurkeztea.
- Menpekotasuna duenaren asistentzia pertsonalaz arduratuko den pertsona izatea (18 urtetik gora eta arreta soziosanitarioko titulazioa eduki beharko ditu).

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Gizarte bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko dirulaguntzak. Baita prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko ere. Aldian-albian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira.

Dirulaguntzak gastu hauei aurre egiteko eskainiko dira:

- Etxebizitza mantentzeko gastuak ordaintzeko: alokairua, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura, etab.
- Oinarrizko beharrak eta hauekin lotutakoak ordaintzeko.

\ NORI ZUZENDUA

Egoera ekonomiko larrian dauden adinekoentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala eta Eusko Jaurlaritzak.

BAKARKAKO ETA FAMILIENTZAKO UDAL DIRULAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Dirulaguntza hauen helburua da larrialdi-egoerek Azpeitian bizi diren edadetuen pertsoneri sortutako beharrei aurrea hartzea eta erantzutea. Esaterako, etxeko gastuetarako alokairua kreditua, energia, oinarritzko beharrak, etab.

\ NORI ZUZENDUA

Ahultasun ekonomikoko egoeran dauden edadetuko pertsoneri.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

SAN MARTIN EGOITZA

\ DESKRIBAPENA

Etxebizitza-zerbitzua da, egonaldi luzekoa edo erabilera iraunkorrekoa, jarduera instrumentaletarako, eguneroko bizitzako bitartekaritza-jardueretarako, gizarte-laguntzako eta gainbegiratzeko laguntza behar duten adinekoentzat.

\ NORI ZUZENDUA

Mendekotasuna duten edadeko pertsonentzat, eta 65 urtetik gorakoentzat, eta salbuespen modura 60 urtetik gorakoentzat eta mendekotasuna dutenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

San Martin Zentro Fundazioa.
Gipuzkoako Foru Aldundia.

EGUNEKO UNITATEA GOIZLAGUN

\ DESKRIBAPENA

Eguneko Unitatearen Zerbitzua asistentzia eta prebentzio-izaerako zerbitzua da, erabiltzaileari bere ohiko ingurunean egoten eta gizarteratzen laguntzeko, eta, hala badagokio, isolamendu-egoerak konpentsatzeko eta zerbitzua komunitateko beste pertsona batzuekin partekatzeko.

\ NORI ZUZENDUA

Mendetasun-arriskuan edo egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak, I. graduako mendetasun-egoeran edo hauskortasun-egoeran daudenak. Salbuespen gisa, 60 urtetik gorako pertsonak.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

EGUNEKO ZENTROA BISTAEDER

\ DESKRIBAPENA

Zerbitzu horrek arreta individualizatua eta integrala eskaintzen die, egunez, mendetasun-egoeran dauden pertsoneri, haien autonomia pertsonala hobetzeko eta mantentzeko, haien muga funtzionalak konpentsatzeko eta ohiko zaintzaileei laguntza emateko. Hori guztia, autonomia pertsonalerako eta ingurune komunitarioan parte hartzeko gaitasunak gaitzera eta garatzera bideratutako prebentzio, gaikuntza eta laguntza prestazioen bidez.

\ NORI ZUZENDUA

Batez ere 65 urtetik gorakoentzat, Gizarte Politiketako Departamentuak mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat jotzen baditu, edo 60 urte dituztenentzat, mendekotasuna duten kasuetan.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.
Gipuzkoako Foru Aldundia.

— — — —

— — — — —

— — — — —

— — — — —

OSASUN IBILBIDEAK

\ DESKRIBAPENA

Taldean oinez ibiltzera irteteko aukera da, herrian ditugun bidegorri eta paseotaz gozatzeko. Helduen eta adinduen aktibitate fisikoa eta giza harremanak bultzaraztea du helburu. Saioak monitore batek gidatzen ditu.

\ NORI ZUZENDUA

Herrian errolatuta dauden 60 urtetik gorako herritarrentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA (KOZ)

\ DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen helburua da jarduera fisikoaren onurak ahalik eta herritar gehienengana iristea, beren osasun fisiko, psikiko eta soziala hobetzeko asmoarekin, eta horretarako banan banako aholkularitza eskaini eta jarraipena egiten da.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian errolatuta daudenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

Intereseko informazioa

SAN MARTIN ZENTRO FUNDAZIOA

Artubia hiribidea 9, Azpeitia.
Tel. 943 81 43 50

EGUNEKO ZENTROA

Julian Elorza hiribidea 11, Azpeitia.
Tel. 943 15 74 96
dir.cdazpeitia@biharko.org

EGUNEKO UNITATEA

a. Santiago kalea 6, Azpeitia.
b. Jose Antonio Agirre plaza 2, 3, Azpeitia.
Tel. 943 15 71 92

BAIGERA ELKARTEA

Enparan kalea 6-1, Azpeitia.
Tel. 943 04 41 31

Baigera I. Jubilatuen taberna.

Enparan kalea 6 behe, Azpeitia.
Tel. 943 81 51 71

Baigera II. Jubilatuen taberna.

Salbe auzunea 34, Azpeitia.
Tel. 943 81 23 89

IBAI-GAIN

Urrestillako jubilatuen lokala
Kale txiki 9 behe, Urrestilla.

APARTAMENTU TUTELATUAK

Eliz kalea 26-28, Azpeitia.

— familia, haurrak eta gaztedia



INFORMAZIO, ORIENTAZIO, BALORAZIO ETA GIZARTE-LAGUNTZARAKO ZERBITZUA

\ DESKRIBAPENA

Gizarte Zerbitzuen sisteman sartzeko bide bat da. Azpeitiko Udalak herritarren eskura dauden gizarte-baliabideen buruzko informazioa, orientazioa, balorazioa eta gizarte-laguntzarako zerbitzua eskaintzen du. Pertsona bakoitzak aholkularitza pertsonalizatua eta bere egoerari egokituta jasoko du. Horrela, gizarte langileek herritarren eskaerak jaso eta erantzungo dituzte, beraien arazo sozialak konpontzen saiatuz.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta daudenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

EGUNEKO ETXETZ ETXETZ ZERBITZUA

\ DESKRIBAPENA

Erabiltzaileari etxean egoten laguntzeko eta esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala eskaintzen zaio.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta daudenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA PROGRAMA

\ DESKRIBAPENA

Gizarte-hezkuntzako laguntza nahiz laguntza psikosoziala eskaintzen duen egitasmoa. Zerbitzu horri esker, arrisku-egoeran eta/edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak dituzten familiei lagundu ahal izango zaie. Familia horien trebetasun pertsonal, sozial edo hezitzaileen arloko gabeziek arrisku larriko egoera eragin badiezaiekete haurrei edo nerabeei, eta horrek zaildu egin badu familiaren etxean jarraitzea.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta daudenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

FAMILIAKO DIRULAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Seme-alabak izateagatik jasotzen diren dirulaguntzak.

• Seme-alaben jaiotzagatik dirulaguntzak

(30 / 2015 Dekretua Martxoaren 17koa / Modifikazioa 121 /2018 Dekretua Uztailaren 30)

• Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak

(164/2019 Dekretua Urriaren 22koa).
- Eszedentzia.
- Lanaldi Murritzeta.
- Seme alabak zaintzeko, zaintzaileak kontratatzeko dirulaguntzak.

• Adin txikiko seme-alabak izateagatik dirulaguntzak (0-3 urte / 3-7 urte)

(27/2023 Dekretua Otsailaren 21koa).
<https://www.euskadi.eus/nuevas-ayudas-mensuales-a-la-crianza-y-mantenimiento-de-las-hijas-o-hijos/web01-a2famil/es/>

\ NORI ZUZENDUA

Seme-alaba izaten duen familientzat. Seme edo alaba adoptatu, adoptatu aurretik familian hartu eta familia unitatean mantentzen diren kasuetan ere emango da laguntza.

\ TRAMITEA

- Tramitazio Elektronikoa.
- Aurrez Aurrekoa – Donostiako Eusko Jaurlaritzako ZUZENEAN bulegoan.
- Azpeitiko Udala- HAZ bulegotik.

\ KUDEATZAILEA

Eusko Jaurlaritza.

ESKU-HARTZE GOIZTIARRERAKO PROGRAMA

\ DESKRIBAPENA

Adingabeen babesgabetasunerako arrisku faktoreak goiz detektatzeko programa da, detektatutako egoeretan goiz jarduteko eta esku-hartzeko ekintzak martxan ipintzea

\ NORI ZUZENDUA

- Azpeitiko udalerriko arlo eta eremu hauetako profesionalak: hezkuntza, eskola, osasuna, aisialdia eta astialdia, segurtasuna.

- Familiak eta adingabeak.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

FAMILIA UGARIAREN TITULUA

\ DESKRIBAPENA

Familia bat ugaria dela aitortzen duen titulu ofiziala da. Izaera horrek hainbat eskubide lortzeko aukera ematen ditu.

\ NORI ZUZENDUA

Hauak dira familia ugaritzat hartzen diren egoerak:

- Guraso bat edo bi, hiru seme-alaba edo gehiago badituzte, komunak izan edo ez.

- Guraso bat edo bi, bi seme-alaba badituzte, komunak izan edo ez, betiere gutxienez horietako batek desgaitasuna badu (%33koa edo handiagoa) edo lanerako ezintasuna badu.

- Bi gurasoak desgaituak direnean (%33 edo gehiagoko desgaitasuna), gutxienez, horietako batek %65eko desgaitasuna edo handiagoa duenean, lanerako ezintasuna dutenean edo bi seme-alaba badituzte, komunak izan edo ez.

- Aita edo ama banandua edo dibortziatua, eta hiru seme-alaba edo gehiago badituzte, komunak izan edo ez baldin eta guraso horren mende badaude ekonomikoki.

- Aita edo ama bat, bi seme-alaba dituen, baldin eta beste gurasoa hilik badago.

- Tutoretzapean, zaintzapean edo babespean dauden eta aitaren eta amaren aldetik umezurtzak diren bi anai-arreba edo gehiago. Tutorearekin,

zaintzailearekin edo babeslearekin bizi badira, baina ez badira haren kontura bizi.

- Aitaren eta amaren aldetik umezurtzak diren hiru anai-arreba edo gehiago, 18 urtetik gorakoak.

\ TRAMITEA

Azpeitia Udala - HAZ zerbitzua.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

“DUELO” LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

\ DESKRIBAPENA

Gertuko senideren bat hiltzen denean ez ohiko egoeretan ematen den laguntza psikologikoa.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta dauden pertsonentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

ETXEBIZITZA TUTELATUA

\ DESKRIBAPENA

Gizarte-menpekotasunen bat duten familiei behin behineko bizilekua eskaintzea, bizitzeko behin betiko aukeraren bat aurkitu eta gizarteratzeko programa baten baitan egon arte.

\ NORI ZUZENDUA

Familia-unitatea gutxienez 2 kidez osatutakoa izatea, Gizarteratzeko programa baten baitan egotea.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Gizarte bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko dirulaguntzak. Baita prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko ere. Aldian-aldean emango ez diren prestazio ekonomikoak dira.

Dirulaguntzak gastu hauei aurre egiteko emango dira:

- Etxebizitza mantentzeko gastuak: alokairua, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura, etab.

- Oinarrizko beharrak eta hauekin lotutakoak.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta dauden pertsonentzat. Norbanakoentzat zein familientzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Eusko Jaurlaritza.

BAKARKAKO ETA FAMILIENTZAT DIRULAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Azpeitian bizi diren familiei sortutako beharrei aurrea hartzeko eta erantzuteko dirulaguntzak.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian bizi diren familiei sortutako beharrei aurrea hartzeko eta erantzuteko dirulaguntzak. Esaterako, etxeko gastuetarako alokairua kreditua, energia, oinarrizko beharrak, etab.

Dirulaguntzak gastu hauei aurre egiteko emango dira:

- Etxebizitza mantentzeko gastuak: alokairua, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura, etab.

- Oinarrizko beharrak eta hauekin lotutakoak.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA (KOZ)

\ DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen helburua da jarduera fisikoaren onurak ahalik eta herritar gehienengana iristea, beren osasun fisiko, psikiko eta soziala hobetzeko asmoarekin, eta horretarako banan banako aholkularitza eskaini eta jarraipena egiten da.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian erroldatuta daudenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.



ezgaitasuna



03

INFORMAZIO, ORIENTAZIO, BALORAZIO ETA GIZARTE- LAGUNTZARAKO ZERBITZUA

\ DESKRIBAPENA

Gizarte Zerbitzuen sisteman sartzeko bide bat da. Azpeitiko Udalak ezinduen eskura dauden gizarte-baliabideen buruzko informazioa, orientazioa, balorazioa eta gizarte-laguntzarako zerbitzua eskaintzen du. Pertsona bakoitzak aholkularitza pertsonalizatua eta bere egoerari egokituta jasoko du. Horrela, gizarte langileek herritarren eskaerak jaso eta erantzungo dituzte, beraien arazo sozialak konpontzen saiatuz.

\ NORI ZUZENDUA

Ezinduentzat edo mendekotasun bat duten pertsonentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Gizarte bazterkeriako eta behar larriko egoerei aurre egiteko dirulaguntzak. Baita prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko ere. Aldian-aldean emango ez diren prestazio ekonomikoak dira.

Dirulaguntzak gastu hauei aurre egiteko eskainiko dira:

- Etxebizitza mantentzeko gastuak ordaintzeko: alokairua, energia elektrikoaren eta gasaren hornidura, etab.
- Oinarrizko beharrak eta hauekin lotutakoak ordaintzeko.

\ NORI ZUZENDUA

Gastu arrunta zein bereziei aurre egiteko sarrera ekonomiko nahikorik ez duten ezinduentzat edo mendekotasun bat duten pertsonentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Eusko Jaurlaritza eta Azpeitiko Udala.

BAKARKAKO ETA FAMILIENTZAKO UDAL DIRULAGUNTZAK

\ DESKRIBAPENA

Dirulaguntza hauen helburua da larrialdi-egoerek Azpeitian bizi diren ezinduei sortutako beharrei aurrea hartzea eta erantzutea. Esaterako, etxeko gastuetarako alokairua kreditua, energia, oinarritzko beharrak, etab.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitiko herritar ezinduentzat, ahultasun ekonomikoko egoeran daudenak.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

EZGAITASUNAREN BALORAZIOA

\ DESKRIBAPENA

Desgaitasun graduaren balorazioa da. Desgaitasun maila portzentaje moduan neurtzen da. Hau guztia, organo, aparatu edo sistemaren batean urritasun iraunkorrak dituzten pertsonak kontuan hartuta. Gainera, faktore pertsonal edo sozial horiek desgaitasunak berak eragindako desabantaila larriagotzen duten egoerei aurre egiteko laguntzak dira.

\ NORI ZUZENDUA

Urritasun edo desgaitasun iraunkor bat dutenentzat. Baita ezgaitasun balorazioa berrikustea nahi dutenentzat ere, beraien ezgaitasun egoera larriagotu egin delako. Ezinbestekoa izango da balorazioaren eskaera baino gutxienez 6 hilabete lehenago diagnostikatuta eta tratatua izatea. Desgaitasuna duen pertsona bezala aitortua izateko, beharrezkoa da desgaitasun gradua %33koa edo gehiagokoa izatea.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

IBILGAILUA APARKALEKUAN UZTEKO EUROPAKO TXARTELA

\ DESKRIBAPENA

Ezgaitasuna edo ibiltzeko zailtasun handiak dituzten pertsonen ematen zaie aparkatzeko txartel berezi hau. Erabiltzaileen ibilgailua horretarako bideratuta dauden aparkalekuetan uzteko aukera ematen duen txartela da.

\ NORI ZUZENDUA

Herrian erroldatuta dauden ezinduentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

TELELAGUNTZA

\ DESKRIBAPENA

Segurtasuna eskainzeko helburua duen zerbitzua da. Telelaguntzako aparatuari esker, erabiltzaileak Eusko Jaurlaritzako SOS Deiak-ekin zuzenean komunikaturik daude eguneko 24 orduetan eta atenditu egiten ditu sortzen zaizkien premiazko egoeretan: erabiltzailea erori egiten bada, gaixo baldin badago, gaizki sentitzen bada, etab.

Urteko egun eta ordu guztietan egongo da erabilgarri bere eskura jarriko den tresnari esker. Erabiltzailea botoari sakatzerakoan, bere arazoa konpon dezakeen zerbitzuarekin jarri ahalko da harremanetan.

\ NORI ZUZENDUA

Gaixotasun, elbarritasun, bakardade edo bestelakoek eragindako arriskuan dauden ezinduentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Eusko Jaurlaritza eta SOS Deiak.

ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZUA

\ DESKRIBAPENA

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua lehen mailako arretako zerbitzu publikoa da, laguntza eta prebentziokoa. Erabiltzaileari bere etxean egoten laguntzeko da, eta etxean bertan eta komunitatean integratu ahal izateko etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala eskaintzen dio, isolamendu-egoerak saihestuz.

• Eguneko etxez etxeko zerbitzua:

Prestatzen diren zerbitzuak honako hauek izango dira: etxeko arreta, arreta pertsonala, bizitzako oinarritzko jarduerak eta jarduera instrumentalak. Zerbitzua astelehenetik ostiralera eta salbuespen modura larunbata igandea, eta jai egunak. Orduetgia 07:00 - 22:00.

• Gaueko etxez etxeko zerbitzua:

Prestatzen diren zerbitzuak honako hauek izango dira. Etxeko arreta, arreta pertsonala. Zerbitzua astelehenetik larunbatera. Orduetgia 00:00-07:00.

\ NORI ZUZENDUA

Herrian erroldatuta dauden ezinduentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.



MEDEKOTASUN ETA EZGAITASUN BALORAZIOAK

\ DESKRIBAPENA

Azpeitiko egoitzan edo eguneko zentroan egoteko baliabideari loturiko balorazioa da. Erabiltzailea zenbaterainoko eta nolako laguntza behar duen baloratzen du. Ezinduei egoitzetako baliabideak/plazak emateko eta pertsona horiek berauetara bideratzeko Gaitasun/Ez Gaitasun ebazpena eta erabiltzailearen profilaren identifikazioa, hain zuzen.

Mendekotasuna: pertsonaren autonomia-maila eta eguneroko bizitzako jarduerak egiteko duen gaitasuna baloratzen da; halaber, orientazioa eskaintzen da eta mendekotasuna duen adineko pertsonarentzat zer baliabide diren egokienak zehazteko aukera ematen du.

Ezgaitasun balorazioak: pertsonaren batez ere osasun fisiko eta mentalaren eremuan eragiten duten egoerak baloratzen zaizkio, eta, ondoren, pertsona gizarteratzea zailtzen duten faktore sozialak (familia-ingurunea eta lan-, hezkuntza- eta kultura-egoera).

\ NORI ZUZENDUA

Gaixotasunaren edo desgaitasunaren ondorioz autonomia fisiko, mentala, intelektual eta sentzoriala falta edo galdu dutelako, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsonen arreta behar duten pertsonen eska dezakete laguntza hau.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

LAGUNTZA TEKNIKOA ETA ETXEBIZITZA EGOKITZEA

\ DESKRIBAPENA

Laguntza honen helburua ezgaitasuna duten pertsonen euren etxean ahalik eta autonomia handienarekin eta erraztasun hobeekin bizitzeko aukera izatea da, eta haiek zaintzeaz arduratzen diren pertsonen lanak arintzea.

- Bainugela egokitzeko.
- Aulki gurgildunak eskuratzeko.
- Garabi elektrikoak eskuratzeko.
- Eskaren aurkako koltxoak eta ohe artikulatu elektrikoak eskuratzeko.
- Etab.

\ NORI ZUZENDUA

Mugapen fisikoak dituzten pertsonentzat. %33eko edo gehiagoko ezgaitasuna dutenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

KOTIZATU GABEKOEN PENTSIOAK

\ DESKRIBAPENA

Gizarte Segurantzaren kotizatu ez dutenentzako aldi baterako dirulaguntza. Erabiltzailearen oinarritzko beharrak asetu ahal izateko eskaintzen dira.

\ NORI ZUZENDUA

Baliabide gutxiko pertsonentzat, gutxienez %65eko desgaitasuna dutenak.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Espainiako Gobernua.

FAMILIA INGURUAN ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

\ DESKRIBAPENA

Etxean mendeko familiarteko bat zaintzeko prestazioa.

\ NORI ZUZENDUA

Mendekotasun gisa baloratzen duen dokumentu ofiziala dutenentzat eta zaintzen den familiartekoa hirugarren gradura arteko senidea direnentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.



ZERBITZUARI LOTURIKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

\ DESKRIBAPENA

Aldi baterako zerbitzua da. Dauden zaintza zerbitzu publikoak eskuratzeko aukerarik ez dagoenean emango da, eskatzen duen pertsonaren dependetzia maila eta diru-sarreraren arabera.

\ NORI ZUZENDUA

Honako baldintza hauek betetzen dituztenentzat:

- Mendekotasun bat dagoela baloratzen duen dokumentu ofiziala aurkeztea.

- Egoitza edo eguneko zentroa zerbitzua eskuratzeko itxaron zerrendan hiru hilabetetik gora egotea.

- Egoitza pribatu edo eguneko zentro batean tokia duela erakusten duen aurrekontratua aurkeztea edo behin bertan egonda ordaintzen ari dela erakusten duten fakturak aurkeztea.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA

\ DESKRIBAPENA

Mendekotasuna duen pertsonaren laguntzailea kontratatzeko aukera izatea da zerbitzu honen asmoa. Laguntzaileak bere hezkuntza eta lan aukerak hobetzen lagunduko dio, baita bere eguneroko bizimoduan autonomia handiagoz aritzen ere.

\ NORI ZUZENDUA

Honako baldintza hauek betetzen dituztenentzat:

- Menpekotasun graduko dependientea dela erakusten duen dokumentu ofiziala aurkeztea.

- Menpekotasuna duenaren asistentzia pertsonalaz arduratuko den pertsona izatea (18 urtetik gora eta arreta soziosanitarioko titulazioa eduki beharko ditu).

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

ARRETA GOIZTIARRA

\ DESKRIBAPENA

0-6 urte bitarteko haurrei, haien familiartekoei eta inguruneari zuzendutako esku-hartzeen multzoa da. Diziplinarteko ikuspegi batetik begiratuta –Osasuna, Hezkuntza eta Gizarte–, helburutzat dauka erantzutea, ahalik eta lasterren, eta osotasunean, garapenean nahasmenduak dituzten edo haiek pairatzeko arriskua duten haurren beharrian iragankor nahiz iraunkorrei.

\ NORI ZUZENDUA

Garapen-arazoak dituzten edo edukitzeko arriskua duten 0-6 urte bitarteko haurrak.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

DESGAITASUNA DUTEN HAUR ETA GAZTEEN FAMILIENTZAKO PRESTAZIOA

\ DESKRIBAPENA

Desgaitasuna duten haur eta gazteen familiartekoei zuzendutako prestazioa.

\ NORI ZUZENDUA

0-18 / 18 urtetik aurrerako pertsonentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Gizarte Segurantzza.

OSASUN IBILBIDEAK

\ DESKRIBAPENA

Taldean oinez ibiltzera irteteko aukera da, herrian ditugun bidegorri eta paseotaz gozatzeko. Helduen eta adinduen aktibitate fisikoa eta giza harremanak bultzaraztea du helburu. Saioak monitore batek gidatzen ditu.

\ NORI ZUZENDUA

Herrian errolatuta dauden 60 urtetik gorako herritarrentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

KIROL ORIENTAZIO ZERBITZUA (KOZ)

\ DESKRIBAPENA

Zerbitzu honen helburua da jarduera fisikoaren onurak ahalik eta herritar gehienengana iristea, beren osasun fisiko, psikiko eta soziala hobetzeko asmoarekin, eta horretarako banan banako aholkularitza eskaini eta jarraipena egiten da.

\ NORI ZUZENDUA

Azpeitian errolatuta daudenentzat.

\ TRAMITEA

Azpeitiko Udala.

\ KUDEATZAILEA

Azpeitiko Udala.

Intereseko informazioa

EGUNEKO ZENTROA

Adimen-desgaitasuna duten

18 urtetik gorakoentzat:

FUNDACIÓN GOYENECHÉ

GARAGUNE – C.A.D.

